

23-Ftik Garoñara

Xabier Mikel
Errekondo

Astelehenen honetan 34 urte bete dira. **23-F. Golpea**. Frankismoaren sakoneko interesak bermatuak geratzeko espainiar inteligentzia zerbitzuen operazio borobila. Golpea deuseztatu omen zuen eta abdikatu berri duen Borboiaren zilegitasuna eta berarekin zin egin zituen **Movimiento Nacional**aren printzipioak betikotzeko trikimailu galanta. Distantziak distantzia, nago Garoñaren kasuan ere zentzu bereko ariketa baten aurrean gaudela, elektrika enpresak eta gobernuak hautu argia egin dutela zentral zaharra berriro irekitzeko, kosta ahala kosta. Liskar antzeztuen gibeletik erabateko konplizitatean ari dira. Orain arteko milaka milioika euroen bar-kamena eta lege aldagetak lekuko. Halere, lur-ama errespetatzen dutela sinistarazi

nahi digute. Eskandaluon aurrean sinesgarritasuna eskuratzeko ahaleginean formula salbatzailea aurkitu dute: **«segurtasun berme guztiak betetzen badira»** baldintza ezarri.

Ederra baldintza, betetzen den ebaztea soilik Gobernuaren eskuetan dagoenean, hots, kontrolpean duen Segurtasun Nuklear Batzordearen (CSN) eskuetan. Amarru hutsa. Gauza bera egin du *fracking*-aren kasuan, ikerketa zein ustiaketa proiektuei **Ingurumen Baimen Bateratua** ezarritz. Baimen hauek ez dute segurtasuna helburu, gobernuaren erabakiaren zilegitasuna baizik. Hala, Kanaria irletako hidrokarburuen prospekzio proiektu bateko Ingurumen Baimen Bateratua Malagako baten *copy&paste* hutsa zela ebatzi zuen epaitegiak. Ederrak bermeak enpresa jakin ba-

tzuen interesen lokatzetan gozo maneiatzen diren gobernuen eskuetan...

Bada, hementxe bertan, Arantxa Tapia Industria Sailburuak argudio-esaldi ezin higituago bera du erabiltzen *fracking*-a babestera jotzen duen une oro: **«segurtasun neurri guzti-guztiak betetzen badira»**... Gauza bera da ematen Garoñarekin. **CSNk baldintza zorrotzak** ezarri berri omen dizkio Iberdrolari (Nuclenor); apustu aurten bertan ematen diela oniritzia CSNk. Erraza amarrua, ezta? Ez gaitezen inozoak izan, **teilatupe berekoak** dira-eta Gobernua, CSN eta Iberdrola. Garoña betiko itxiko da herritarrok, alderdiek eta instituzioek egiten dugun indarraren arabera. Gaur Gasteizeko manifestan, bihar Iberdrolarekin ditugun kontratuak hautsiz eta etzi bere lehendakari Ignacio Sanchez Galani *escrache*-a eginaz. •

Euri pertsiana kolpeka

Maider Iantzi

Ez gara deus, konturatu naiz Eurik pertsiana kolpeka ernatu nauenean. Bi aldiz gaur gauean. Haserre dago Zaparraden alaba eta Txingor eta Kazkabarren biloba (Twitterren irakurri dut izendapena eta polita iruditut zait). Etxea airean eramanen zuela ematen zuen... Baina bai, bagara zerbait. Eta Kotoiz idor dezakegu Euriren bizitokia, bere mundua bera, Itsaso.

Aste honetan eguraldiarekin izandako sentazioak bizi-bizi (haizea kotxea dantzara gonbidatzen, orroak zerbait erran nahian, ibaiak etxeak jaten...), kontraste itzela izan da kotoi industria batek itsaso oso bat edan duela irakurtzea. Dirudienez,

40 urte aski izan zituen kotoiaren industria sobietarrak munduko laugarren laku handiena –Aral itsasoa, Asiaren erdialdean– lehortzeko. Urez beteta zeuden 60.000 kilometro karratu, leku batzuetan 40 metroko altuerarekin, kolpeka lurrundu ziren. Orain %10 soilik gelditzen da.

Asiako bi ibairik handienek elikatzen zuten Aral itsasoa, Sir Dariak iparraldetik eta Amu Dariak hegoaldetik... Asia Erdialdea munduko kotoi ekoizlerik handiena izatea nahi zutenek iturritzat hartu zituzten arte. Hala, 1980ko aldi batean, Uzbekistanen bertze inon baino kotoi gehiago kultibatu zuten. Helbide honetan irakur daiteke albistea: bbc.co.uk/mundo/noticias/2015/02/150225_gch_mar_aral_sequia_lp.

Lankide batek, euria gogoz egiten duen aldiro, leihora hurbildu eta, tantez harro, esaldi bera errepikatzen du: «Gustatzen zait euria, librea da! Nork geldi dezake euria!». Eta hala da, ezin dugu gelditu, batzuetan, egunotan bezala, hala nahi eta behar badugu ere. Ongi ikasiak ditugu abisu hori, alerta laranja eta alarma gorriak, baina denak piztuta ere, ezin kalteak ekidin (horietako aunitz ohiko lekuetan). Begiratuaren begiratuaz ezin goiti eta goiti datorren ibaia ateratzea saihestu.

Diru gose hutsagatik natura zauritu eta bizitokiak suntsitu arren, Eurik libre segitzen du. Hobe berekin ongi konpondu... •